

Oihana ikastolako Euskaraz Bizi Hitzarmena (“xarta”)

Sarrera

Euskara, euskararen presentzia, gure eskola proiektuaren oinarrian da. Gu denen ardura da, izan talde profesional eta guraso. Gure haurrak ikastolan emanez, euskaraz bizi eta ikas dezaten nahi dugu.

Gure inplikazioak guraso gisa, gure diskurtsoak guraso gisa, gure jarrerak euskararekiko ikastolan eta gizarte zabalean eragin dezake haurren euskararen erabileran.

Oihana ikastola mailan euskararen erabilpenaren azkartzea helburu, gure ikastolak euskaraz funtziona dezan arau batzuk biltzen ditu Euskaraz Bizi hitzarmen (xarta) honek.

Beste hitz batzuetan, Oihana ikastolaren hizkuntza politika definitzen du xartak, hau da ikastolaren bizia eta euskara uztartzeko ikastolak egin dituen hautuen eta finkatu dituen praktiken zerrenda egiten da. Arau hauek molda daitezke denboran.

Kontestua

2015eko ekainean, Euskaraz Bizi Hitzarmena (xarta) bozkatu zen Ikastolen Kontseiluan, “Lehen Mailako ikastoletan Hizkuntza Proiektuak bideratzeko edo eguneratzeko, hiru ardatzetan finkatuz: Sentsibilizazioa, Hizkuntza Politika, Sustapena.” Hortik landa, 2017-2019 Euskaraz Bizi komisioetako gurasoen gogoeta parte hartzaileetatik arau proposamenak jalgi ziren.

“Arautzearen bidez, nagusiki euskaraz funtzionatzen dakiten ikastolak nahi dira Seaskan: heldu euskaldunei euskaraz eroso bizitzea bermatuz, heldu erdaldunen kooperazioa eta konplizitatea atxikiz, denen artean eskuz-esku eraikitzen aitzinatuz. Hizkuntzak kontuan hartuko dituen elkarbizitza eredu bat landu nahi da, inguruko gizarte elebakar eta diglosikoari aberastasun eta oreka linguistikoa ekarriz, baita etorkizunari pentsatuz: gure haurrei euskaraz funtzionatzen dakiten egitura inklusiboak utziz. Arautze-prozesu progresiboa eta parte-hartzailea bideratuz, euskararen biziberritzearen gaia molde iraunkorrean gogoetatu nahi da: iritziak trukatzuz, urratsak adostuz, ardurak partekatuz, kontzientziak fresko atxikiz, elkarlanean ikasten gozatuz, baita gure haurrentzat egin dugun murgiltze ereduaren hautuarekiko koherente izanez. Denborak ekarri beharren arabera, arauak gogoetatu eta bozketara eramanez dira etorkizunean ere bai, oinarri sendoa eskain dezaten. Seaska mailan arautuz, ikastolen arteko harmonizazioa nahi da, kohesioa bilatuz helburu komun eta bakoitzaren dinamikaren artean, egoera soziolinguistikoa desberdinak ahantzi gabe.” (Ikastolen Elkarteak onartu Euskaraz Bizi hitzarmena).

Bestalde, Oihana ikastola mailan, gurasoen elkarteak engaiamendu azkar bat hartu zuen euskararekiko 2022ko maiatzaren 21eko Biltzar Nagusian:

“Oihana ikastolako ikasleen artean euskararen erabilerak azkarki gibel egin duela ikusirik, Egoera horren aitzinean, talde profesionalarekin osagarritasunean, gurasoen ardura dela ere ikusirik,

Lan sakon baten parti araztea erabakitzen dugu egun, haurren euskara erabileraren azkartzea helburu, tresna eta ekintza posibleak aztertuz eta gauzatuz.”

Hortik, besteak beste, Euskaraz Bizi hitzarmenaren lantzea eta bozkatzea erabaki zen.

1. Sensibilizazioa

Engaiamendu hau Ikastolan egiten diren lehen urratsekin hasten da, guraso eta irakasleen artean, guraso berri eta elkartearen ordezkarien artean trukutzen diren lehen hitzekin.

Ikastola aurkezten duten hitzorduetan euskararen biziberritzeari buruzko sentsibilizazio lana bermatzen da, bai eta Hizkuntza Proiektuaz informazioa ematen. Hara nola, ate-idekitzeak, buraso berrien bilkurak bezalako hitzorduetan burasoen ekarpen posiblea azaltzen da: euskararen mundua eraikuntzan da, eta burasoek anitz badute ekartzeko haien haurren euskarazko sozializazioan, ikastolaren osagarri dira, euskaraz jakin ala ez. Bestalde, hitzordu horiek ikastola mailako, zein Seaska mailako hizkuntza-hautuak zintzoki aipatzeko guneak ere dira: buraso nahiantek argiki jakin behar dute non ibiliko diren, ikastolaren aukera haiena izan dadin, konfiantza-harremana sortuz hastapenetik.

Hala da, gurasoen engaiamendua eredu bat da haurrentzat. Horretarako gurasoen inplikazioa euskararekiko ezinbestekoa da, edozein mailetan (eta bakoitzak bere heinean).

Haurra Ikastolara sartzean elkarrizketa gidak banatuak zaizkie guraso berriei. BN eta sartzeko bilkuretan tresnak badirela oroitarazia da (padlet, elkarrizketa gidak...). Sensibilizazioa jarraikia da (ez guraso berriei buruz bakarrik), eskolatzeko guzian. Euskararen erabilpena garatua eta sustatua da Ikastolako solasaldi guneetan: BN-etan, batzorde bilkuretan, WhatsApp taldeetan etab.

Urte guziz, Euskaraz Bizi batzordeak Euskaradunak ez diren gurasoen galdera eta arreguren inguruko tailer bat proposatzen du. Beste tailer batzuk sor daitezke beharren arabera.

Gurasoek euskara ikastea sustatua eta errextua da. Formakuntza eskaintzak aurkeztuak zaizkie: mintza-praktika taldea, guraso kurtsoak AEK-n, « euskaraz manatzen ikasi » tailerra etab. Euskaraz Bizi batzordeak, maila guzientzako eta eduki ezberdineko formakuntza eskaintzari buruzko informazioa helaraz dezake.

Ardura: Sensibilizazio lan hau Ikastola aurkezten duten irakasle eta gurasoei doakie. Euskaraz Bizi batzordea lan horren bultzatzaile da (tailer antolaketa, trukaketa ...); tresnak eskuragarri utziko ditu gurasoak konkretuki sustengatzeko.

2. Guraso elkartearen funtzionamendua

a/ Biltzar Nagusia

Biltzar Nagusia ikastolako erabaki-gune nagusia izanez, honen funtzionamenduan euskararen presentziaren bermatzea beharrezkoa da. Biltzar Nagusiak euskaraz iragaiten dira hastetik buru, itzulpen-zerbitzuak bermatuz burasoen arteko komunikazioaren ahalbidetzeko. Ikastolako AKk ditu Biltzar Nagusiko hizkuntza-baliabideak bermatzen eta kuadroa argiki azaltzen.

- EEPren itzulpen kaskoak erreserbatuko dira aldi oro (AKren gain)

- Itzulpena segurtatuko duen taldetto bat segurtatzen da (2 gutienez)
- Biltzar Nagusia eramaten duten pertsonak euskaradunak dira
- Guraso erdaldunek frantsesez parte har dezakete bilkuran, erantzuna euskaraz emaiten zaielarik (itzulpenarekin)
- Euskarri idatziak bi hizkuntzetan dira

Ardura : Ikastolako Administrazio Kontseiluak edo Bulegoak ditu Biltzar Nagusiko hizkuntza-baliabideak bermatzen: hizkuntza-koadroa aitzinetik gogoetatuz (itzultzaileak eta materiala aitzinetik bermatuz), eta koadro hori argiki azalduz Biltzar Nagusia hasterakoan. Euskaraz Bizi buraso komisioak aholkulari funtzioa betetzen du, eta arauaren ebaluaketaren arduradun izanen da.

b/ E-mezu formalak

E-mezu formalak bi hizkuntzetan hedatzen dira. Euskaraz lehenik, edo gero frantsesez. Honek ikastolako guraso batzorde guzientzat balio du.

Ardura : Email formalak bidaltzen dituen edozein buraso komisioren ardura da. Euskaraz Bizi buraso komisioak aholkulari funtzioa du, eta arauaren ebaluaketaren arduradun izanen da.

c/ Kanpo komunikazioa

Kanpo komunikazioan, euskararen erabilpena sustatzen da idatzian zein ahozko harremanean

- Afitxak elebidunez dira, lehen hitzak eta handienak euskaraz idatziz.
- Webguneak elebidunez, euskara lehenik eta lodiagoz agerraraziz.
- Antolatzen ditugun bestetako prezio afitxak euskaraz dira. Ostatu gainean hiztegitxo afitxa plastifikatuak ezartzen dira (ikus “Bestak” parte.).
- Antolatu ekitaldietan (hitz hartzeak eta harrera) euskaraz lehenik egiten da.

3. Aisialdi eta kultur jarduerak

Burasoek antolatu aisialdi eta kultur jarduerak euskaraz dira, ikastola barnean zein kanpoan, izan daitezen haurrei edo haur eta helduei zuzendurik.

Aisialdi eta kultur jarduerak funtzio garrantzitsua dute haurren euskarazko sozializazioan: euskaraz bizitzea gozamenarekin lotzea, lexikoa aberastea, hizkuntza molde informalean lantzea, mundu zabala euskaraz deskubritzea, euskarazko erreferente berriak ezagutzea, lagunekin euskaraz harremantzea... Ikusiz euskarazko aisialdi-eskaintzan gabezia handiak badirela, ikastoletako Talde Profesionalaren lanari oihartzun egitea doakie burasoei, aldi berean jarduerak antolatuz, baita partaidetzak zein eskaerak lotuz tokian tokiko eragileekin. Parada ere bada burasoen dohainak ezagutzeko.

Horregatik, Euskaraz Bizik bultzaturik Oihana ikastolaren eta BIL-en sustengatuarekin, ekintza zenbait antolatuak dira, segitzekoak eta sendotzekoak direnak:

- Euskaraldiaren inguruko dinamika berezia: « bihotz bero » perfila, gurasoentzako tailerrak...
- Hitzordu azkarren inguruko ekitaldiak: Korrika kari (udaberriko dantzaldia), euskararen nazioarteko eguna (haurrentzako ipuinak, aperitifa eta kantu bazkaria)
- Euskarazko liburu, CD, DVD salmenta eguberri aitzin (berriak eta bigarren eskukoak)
- Euskarazko aisialdi eskaintza erakusten laguntzen da : Herrixka
- Baiona inguruko aktibitate eta hitzorduak agerian emaiten dira (euskal museo, mediateka...)

- Oihana ikastolako guraso eta haurrentzako euskarazko ateraldi batzuen proposatzea Antsoteko ordokian, bertako zerbitzuek lagundurik.
- Beste ateraldien antolaketa : maskaradak, kabalkada...

Ardura : Norbanako edo kolektibo orok horrelako aktibitateak antola detzazke, haurren euskarazko sozializazioa lantzea delarik helburua. Euskaraz ez dakiten gurasoek ezin badute haurrekin zuzenean jarduerarik eraman ere, laguntza handia ekartzen ahal dute aisialdi eta kultur eskaintzak euskaraz bideratzeko, inguruko eragileekin. Euskaraz Bizi guraso komisioak aholkulari funtzioa du, eta arauaren ebaluaketaren arduradun izanen da.

4. Bestak eta kanpoko ekimenak

Euskararen presentzia eta erabilpena bermatu behar dira ikastoletatik zein federaziotik antolatu bestetan.

Gure bestek anitz ekartzen digute: plaza, giroa, diru-iturria, burasoen arteko kohesioa... Ikastolen mugimenduaren erakusleho ere badira, eta horregatik ere funtsezkoa da euskararen presentzia eta erabilpena bermatzea espazio horietan, murgiltze-ereduarekiko koherente izanez. Buraso erdaldunek ere urrats konkretuak egin ditzakete hor, oinarrizko hiztegi eta formulak barneratuz euskaraz.

Gure bestetan, lau eremu nagusi zaintzen eta lantzen dira:

1. Soinu paisaia: publikoki hitza hartzean euskara lehenetsiz; ekarrarazi ditugun artistak/animatzaileak aitzinetik sentsibilizatuz; hedatzen dugun musikan euskara gozaraziz
2. Paisaia bisuala: bestaren berri ematen duten afitxetan, euskara lehenetsiz eta zuzentasuna zainduz; besta denboran, elebitasun sistematikoaren orde, euskararen ondoan piktogramak/irudiak erabiliz norabide zein produktuen seinaleketan; euskararen erabilpena akuilatuz zintzilikatu afitxetan zein barra gainean plastifikatu fitxetan
3. Antolatzaileen hizkuntza-praktikak: lehen hitzetik hasiz, euskarazko zerbitzua bermatuz publikoari; horretarako, buraso erdaldunei euskara inimizazioak eskainiz aitzinetik; Euskaraldiko txapak erabiliz publikoarekin zein antolatzaileen artean ere ahal bezainbat euskaraz gozatzeko; ahal bezain beste, euskaldunak eman zerbitzuan
4. Publikoaren hizkuntza-praktikak: gure antolaketatik euskararen erabilpena sustatu publikoaren artean, izan gure tresna (afitxa, fitxa, txapa...), zein jarrerarekin (euskaraz gozatzeko prest lehen hitzetik hasiz)

Konkretuki, ikastolako ekimen nagusiak hauek dira : Baionako Bestak eta taloen saltzea ABko rugby partidetan.

Ardura : Ikastolako BIL edota federazioko antolatzaileen esku da gogoeta ekartzea eta neurrien hartzea, euskararen presentzia eta erabilpena konkretizatze bestetan. Ikastolan, Euskaraz Bizi guraso komisioak aholkulari funtzioa betetzen du, eta arauaren ebaluaketaren arduradun izanen da.